

KRITIKA MUSIKA

Joseba Martin



IÑIGO AZKONA

Mark Knopflerrek bere kantu ezagunenak eskaini zituen Bilbon.

Mark Seguro

Mark Knopfler

Lekua: Bilboko Vista Alegre zezen plaza. **Eguna:** Uztailak 3. **Jende kopurua:** 8.500 lagun. **Iraupena:** Bi ordu eta 20 minutu.

Ez zen bete zezen plaza, baina, dena den, entzule ugari bildu zen Bilbon. Gehienak berrogei urte ingurukoak ziren; beraz, erraza zen esaera zahar hori gogoratzea: *Orhiko txoria Orhin la- ket*. Beste modu batean esanda: agerturiko jendea zoriotsua izango litzateke Dire Straits taldearen kantu ezagunenak bakarrrik entzungo balitu. Eta, nola edo hala, horrela gertatu zen. Beraz, Mark Knopfler eroso sentitu zen entzule lagungarri hauekin; eta horrexegatik eskaini zigun agurreko kantu berezia: *Local hero* filmaren soinu bandako *Wild theme* instrumentu hutsezkoa, gitarra eta sintetizadore baten laguntza bakarraz.

Knopflerren ekitaldia musika dastatzekoa zen: argiak –gorriak eta laranja gehien batean– eta eszenografia xumeak edo sinpleak ziren; hori bai, soinuaren kalitatea apartekoa ge-

nuen. Glasgoweko gitarra jolearen inguruan sei musikari kokatu ziren: Dire Straitseko Guy Fletcher teklatu jolea, azken lanean topa dezakegun Mike Henderson gitarra, harmonika, biolin eta mandolina jole bake-roa –kapela eta guzti–, hirugarren gitarra, bigarren teklatura, baxua eta bateriarekin batera.

Arriskatu gabe

Lehenbiziko kantuekin –*Calling Elvis* eta *Walk of life*– kontzertua nola joango zen argi ikusi genuen: hamar minutuko kantuak, batzuetan luzeagoak, solo ugariarekin eta, noizean behin, soberan zeuden tarteeekin, batez ere teklaturen atal luzeak. Kantu gehienak Dire Straitseko garai-koak ziren –*Romeo and Juliet* luzea eta lasaiegia, teklaturik gabeko *Sultans of Swing* ahaztezi-na, *Telegraph Road* luzeegia ere, edo bisetako *Brothers in arms*, *Money for nothing*, *So far away* edo aipaturiko *Wild theme*–; baina, nire ustez, une interesgarrienak pieza berriekin gertatu ziren: *What it is* –biolin eta guzti,

eurit tantak agertzen ziren bitartean–, *Sailing to Philadelphia* –lau gitarra akustiko eta elektriko bat– eta *Baloney again* eta *Jun-kie doll* baladek giro ezberdinak ekarri zizkiguten. Aipatzekoa izan zen *Done with Bonaparte* kantuaren egitura: Marken dobroaz gain, mandolina, mandola, biolina, kontrabaxua eta gitarra akustikoak elkartu ziren country-folk soinu ederra sortzearen. Hauxe da Marken gustuko musika, baina jendeari eskatzen duena eman behar zaio.

Dena den, Knopfler gitarra jole apartekoa dugu eta solo ugari eskaini zuen, elektrikoan, akustikoan edo dobroan, horren lekuko. *Sultans of Swing*, *Walk of life* edo *Money for nothing* kantuek riff onenak erakutsi zituzten. Bitxikerien artean grabatu gabeko *Pyroman* pieza, bisak baino lehenago heldu zitzaiguna. Jendea pozik atera zen, batez ere gehiegi eskatzen ez zuelako. Knopflerrek, besterik gabe, bere rola jokatu zuen, gehiegi arriskatu gabe. Horri, gure artean, Segurolarena deitzen zaio.

LABURAEAN

ZINEMA

Daniel Kalparsoro 'Guerreros' filmaren errodaiea amaitzen ari da Madrilén

EGUNKARIA
Daniel Kalparsoro.

Kosovoko gerran girotutako filma zuzentzen ari da Daniel Kalparsoro zinegile donostiarra joan zen apirilaz geroztik. Filmak 600 milioi peze-tako aurrekontua du, eta zuzendaria atzo Madrilén azaldu zuenez, ekoiztetxeak egindako «enkargua» da. Bake misioan Kosovora doazen Espainiako Armadako zortzi soldaduren istorioa da filmaren ardatza.

«Abenturazko film bat da hasieran, baina gero beldurrezko film bihurtzen da, beldurra eta izua baita gerra», dio Kalparsorok. «Kosovo zaborte- gi erraldoi bat da, non denbora geldirik dagoen», gaineratu zuen. Eduardo Noriega eta Eloy Azorin aktore espainiarrak dira protagonistak.

ARGAZKIGINTZA

Lobo Altuna tolosarraren erakusketa hartu du Photogaleriak

Madrilgo Photogaleriak Ignacio Lobo Altuna (Tolosa, 1967) argazkilariaren erakusketa jarri du hilaren 25a bitartean. Erromesaldiak, inauteriak, eroetxeak, ospitaleak eta euskal tradizioak sarritan agertzen dira Lobo Altunaren argazkietan. Miguel Sanchez Ostiz idazleak katalogoaren hitzaurrean dioenez, Lobo Altunak «errealitatearen alderdirik egiazkoena harrapatzea lortzen du, batere konbentzionala ez den begirada baten bidez».

MUSIKA

Sei abesbatzak hartuko dute parte igandean La Antiguako V. Lehiaketan, Zumarragan

Katalunia, Andaluzia, Madril eta Euskal Herriko sei abesbatzak hartuko dute parte igandean Zumarragako La Antiguako V. Lehiaketan. Bizkaiko Doinuzahar Kamara Abesbatza eta Tangorako Soinutarrak, Gipuzkoako Goikobalu Abesbatza, Madrilgo Carlos III Unibertsitateko Abesbatza, Bartzelonako Rossinyols eta Granadako Sine Nomine Abesbatza izango dira lehiakideak. Lau obra abestu beharko ditu bakoitzak, eta horietako bat derrigorrezkoa izango da denentzat, Tomas Garbizuren *Zer dugun ikusi* hain zuzen ere. Irabazleak 200.000 peze-tako saria jaso eta 2002an Zumarragan egingo den Abesbatzen Sari Nagusian parte hartzeko eskubidea izango du.


ZINEMA

Iosselianiren 'Adieu, plancher des vaches!' estreinatuko da ostiralean Hegoaldean

Georgiako zinemagile Otar Iosselianiren azken lana estreinatuko da ostiral hone-tan Hegoaldeko zinema aretoetan: *Adieu, plancher des vaches!* filma. «Euren desioen preso diren pertsonaiak ageri dira pelikula honetan. Bizitza horretatik ir-ten eta zerbait hobea nahi dute», azaltzen du zinema-gileak bere filmaren nondik norakoa. Aurtengo Donostiako Zinemaldiak Otar Iosseliani zinemagilearen atzera begirakoa eskainiko du.

IRAGARKI MERKEAK

943 300 222

OSTIELA! ALDIZKARIAREN
22. ALEA KALEAN!

"Antzerki hutsa da zurea" eta "MUNDUA ANTZERKI / ANTZERKI MUNDUA" erdi-monografikoa dator udako aldizkari komeriantean, diseinu eta maketazioa berrituta. Maskarada bandako MIKEL MARTINEZi elkarrizketa nagusia. Ionesco eta Beckett Godoten zain, e.a. Kanaango ezteiak, Lazaroren berpizketa, Ni eta nire sudurra, Nik ez nuen nahi eta Gobernu-Ordezkararen heriotza antzezlanak osorik. Marxkarada, Pistolaren Begi Zuri-Beltzak, Gabonetako Ikuskizuna, Gabon Sariak eta El Borracho Burlado-ren testu-zatiak ... "Papalagiak", samoar buruzagiaren hitzaldi ospetsuak (Agur Jaunak Gizon Zuriant); Lope AGIRREko unibertsalaren "Carta a Felipe II" harigarria; Noam CHOMSKY intelektual mundialaren bizitza eta lanak; H.D. THOREAUren "Desobedientzia Zibila"; *Mogimendu Situazionalista*; Brendan Behanen "Exekuzioa" ... Dario Fo, Anonimo Torrentianoa, "Kartxi", Mikel Elorza, Koldo Goitia, Axier Mujika, Edurne eta Amaia Alustiza, Mixel Sarasketa eta beste belar batzuk

Merke-merke, 400 pezetan salgai E.H. osoko liburutegia eta kioskoetan. Urteko harpidetza (4 ale) 1.600 pzt (ale "atzeratuak" erdi-prezioan). Eskatzaileak Ordiziako 131 p.k.-ra edo deitu (edo idatzi) 943-161835 tfo./faxera. ostiela@autovia.com
www.ostiela.com

70 x 33 mm
2 MODULO
(Edizio orokorra)

Eguna: 6.000
Astea (6 egun): 4.600
2 aste (12 egun): 4.200
Hilabetea (24 egun): 3.000

33 x 33 mm

33 x 33
MODULO
(Araba-Nafarroa)

Eguna: 2.200
Astea (6 egun): 1.900
2 aste (12 egun): 1.600
Hilabetea (24 egun): 1.200

33 x 33 mm

33 x 33
MODULO
(Edizio orokorra)

Eguna: 3.000
Astea (6 egun): 2.300
2 aste (12 egun): 2.100
Hilabetea (24 egun): 1.500

33 x 33 mm

33 x 33
MODULO
(Iparralde)

Eguna: 84 l.
Astea (6 egun): 73 l.
2 aste (12 egun): 61 l.
Hilabetea (24 egun): 46 l.